



EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIARENA, DANTZAKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK EGITEKO SARBIDE-PROBETARAKO DEIA EGITEN DUENA, 2022. URTEKO PROBA ANTOLATZEKO, EGITEKO ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DITUENA ETA 2022-2023 IKASTURTEAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan ezartzen duenez, goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko, beharrezkoa da batxiler-titulua edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta izatea, bai eta dagokion sarbide-proba espezifikoa gainditzea ere. Hori bera jasota dago Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan.

Bestalde, lege organiko horrek 69.5 artikuluan ezartzen duenez, hemezortzi urtetik gorakoek, batxilergo-titulua dutela edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutela egiaztatzen ez badute ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egin ahalko dituzte; horretarako, proba bat gainditu beharko dute. Proba hori hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatuko dute, eta haren bidez egiaztatuko da izangaia behar bezain heldua dela, Batxilergoko helburuei dagokienez eta dagokion ikasketak probetxuz egiteko ezagutzari, abileziei eta gaitasunei dagokienez. Izangaiek, horretaz gainera, ikasketa horietako bakoitzerako sarbide-proba espezifikoa gainditu beharko dute.

Urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuak, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako irakaskuntzak antolatu zituenak, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautu zuen maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua argitaratu zen.

632/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua arabera, irakaskuntza horietan sartzeko egin beharreko sarbide-proba espezifikoaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko dituzten heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak balioestea, eta hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie proba horretarako deialdia egiteko eta proba hori antolatu, garatu eta ebaluatzeko. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da 2022-2023 ikasterterako Euskal Autonomia Erkidegoan Dantzako goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoaren deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere.

Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.

1. Goi-mailako irakaskuntza horietara sartzeko probaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun badituzten balioestea.

2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.





3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

Hirugarrena. Ikasleek proba egiteko bete beharreko baldintza.

Ikasleek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoak egin ahal izateko:

1. Batxiler-titulua izatea.

2. Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu izana.

3. Goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoen ordezkotako heldutasun-proba edo lanbide-heziketako goi-mailako heziketa-zikloak egiteko sarbide-probaren atal komuna gainditu izana.

Laugarrena. 2022ko proba egiteko izen-ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.

1. Izena emateko epea: apirilaren 4tik maiatzaren 20ra arte (Ikastetxea itxita egongo da apirilaren 11tik 22ra arte).

2. Eskaera online egingo da.

3. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu behar dituzte sarbide-probaren prezio publiko gisa

4. Dantzako irakaskuntzak egin nahi dituzten ikasle guztiek online bete beharko dute izena emateko eskabidea.

5. Maiatzaren 26an "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko da proba egiteko izena emandako pertsona onartuen zerrenda, eta, hala badagokio, baztertuen zerrenda ere bai, baztertuta geratzeko arrazoiak adierazita. Akatsak zuzentzeko epea argitaratze-egunetik maiatzaren 31ra arte (egun hori barne) egongo da irekita.

Bosgarrena. Sarbide-probaren egitura.

Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetako Koreografia eta Interpretazioa espezialitatea egiteko sarbide-proba espezifikoak bi zati izango ditu:

1. zatia

Proba egiterakoan epaimahaiak izangaiei proposatuko dien dantzari buruzko testu baten iruzkina egitean datza. Aurrez, erreferentziazko bibliografia bat eskainiko da "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunearen bidez (www.dantzerti.eus).

Izangaiaren heldutasuna eta ezagutza balioetsiko dira, eta, horretarako, kontuan hartuko da izangaiek kontzeptuak ulertzen dituen, zer-nolako hizkuntza erabiltzen duen, loturak egiteko eta laburbiltzeko gaitasuna duen, ematen dituen erantzunak egokiak diren eta egindako analisi kritikoa.

Ikasleek 60 minutu izango dituzte gehienez ariketa egiteko.

Aurkezten direnek idatzizko proba euskaraz edo gazteleraz egin ahal izango dute, eta beraien aukera eskabide orrian adieraziko dute.

2. zatia



Praktikoa izango da, espezialitatearekin lotuta egongo da eta epaimahaiari aukera emango dio izangaien ezagutza orokorrak, teknikoak, artistikoak nahiz interpretaziokoak, eta sorkuntzakoak neurtzeko. Hiru ariketek osatuko dute (A, B eta C).

Ariketak balioesteko irizpideak "Dantzertiko" webgunean egongo dira.

A ariketa

Dantzako irakaskuntza profesionaletako azken ikasturteko bi eskola praktiko egitea, teknika-, musika- eta adierazpen-gaitasunaren parametroak behatzeko, bai eta izangaiak duen ahalmen fisikoa eta kognitiboa ere.

Izangaiek epaimahaiak izendatutako aditu batzuek emandako Dantza Klasikoko eskola bat eta Dantza Garaikideko beste bat jasoko dituzte.

Eskola bakoitzak 75 minutu iraungo du gehienez.

B ariketa

Bakartsaio bat egitea. Izangaiak errepertorioaren bariazio bat edo sorkuntza bat interpretatzeko aukera izango du. Ariketa horren helburua izangaien interpretatzeko gaitasuna balioestea da.

Ariketa horrek hiru minutu iraungo du gehienez.

C ariketa

C ariketak bi zati izango ditu:

- C1. Inprobisazio-saioa.

Inprobisazioko talde-saio bat egingo da.

- C2. Sorkuntza.

Sormenezko banakako ariketa bat egitea. Epaimahaiak gai edo jarraibide bat proposatuko du sorkuntza baterako abiapuntu gisa. Izangaiek 30 minutu izango dituzte gehienez, 3 minutuko proposamen eszeniko bat prestatzeko. Proposamen hori banaka aurkeztuko dute prestaketa-denbora amaitzean.

Banakako ariketa aurkeztu ondoren, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen nahi beste galdera egin ahal izango dizkio izangai bakoitzari.

I. eranskinean ageri da probaren egitura eta zati bakoitzari dagokion puntu kopurua.

Seigarrena. Sarbide-probaren kalifikazioa

1. Sarbide-proba espezifikoa gainditzeko, ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea. Lehenengo zatian 10 puntu edo gehiago eta bigarreanean 40 edo gehiago lortu dituzten izangaien behin betiko puntuazioa baino ez da jasoko.

2. Amaierako kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta, horretarako, batetik ehunera bitarteko eskala erabiliko da, dezimal batekin. Dezimal hori gertueneko hamarrenean biribilduko da eta distantzia berean badago, handienera.

3. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, dantzako titulu profesionala izatea kontuan hartuko da probaren azken kalifikazioa jartzeko. Kalifikazio hori, titulu profesionala aurkeztzen dutenentzat, honako adierazpen honen arabera lortutakoa izango da: proba espezifikoa, % 80 + titulu profesionalaren batez besteko nota, % 20.

Zazpigarrena. Sarbide-proba espezifikoko epaimahaia



1. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du epaimahaia, eta, gutxienez, epaimahaiburuak eta hiru epaimahaikidek osatuko dute.
2. Epaimahaiak egoki deritzen aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.
3. Honako hauek dira epaimahaiaren egitekoak:
 - a) Euskal Autonomia Erkidego osorako bakarrak izango diren probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea.
 - b) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
 - c) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
 - d) Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzea.

Zortzigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeke eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izateko.
2. Pertsona horiek hezkuntza-premia bereziak dituztela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

Bederatzigarrena. Proba egitea.

1. Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoa ekainaren 13tik 17ra bitartean egingo dira. Data zehatzak, gutxienez, proba-egunak baino hamar egun lehenago jakinaraziko dira "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolaren webgunean.
2. Probak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo dira.
3. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, jarraibide gehigarrien bidez, aurreko puntuei buruzko argibide gehiago eman ahal izango ditu "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren iragarki-taulan edo webgunean.
4. Izangaiek NAN, AIZ edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute probak egin ahal izateko. Horrez gain, beraiek eraman beharko dituzte probako ariketak egiteko beharrezkoak diren tresnak.

Hamargarrena. Probaren emaitzen argitalpena eta erreklamazioak.

1. Behin-behineko kalifikazioak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko dira, proba egin eta bi egun balioduneko epean.
2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun balioduneko epean egin dezake ikasleak proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa egin ahal du. Erreklamazioa epaimahaiburuari egin beharko dio, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin betiko kalifikazioak behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta gehienez ere astebetera argitaratuko dira.
4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazioa argitaratu eta hilabeteko epean.

Hamaikagarrena. Probaren ziurtagiria.

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiri bat eskatu ahal izango du proba egin duen ikastetxean. Ez zaie ziurtagiririk emango proba guztiz gainditu ez duten izangaiei, ez ziurtagiri partzialik, ez eta ariketen kalifikazio-ziurtagiririk ere.

Hamabigarrena. Dokumentazioa gordetzea.

Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.

Hamahirugarrena. Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.

1. 2022-2023 deialdian, eta martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritako ratioen arabera, administrazio akademikoak sarbide-probetarako deialdia egiten du Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko 25 plaza betetzeko.

2. Ikasleak onartzeko, ezinbestekoa da ikasleak sarbide-proba espezifikoa gainditu izana.

3. Proban lortutako noten arabera esleituko dira plazak, beheranzko hurrenkeran.

4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probako bigarren zatian nota handiena lortzen duen izangaia. Hala eta guztiz ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasuna izango du sarbide-proba egiteko egiaztatutako baldintza akademikoan kalifikaziorik onena egiaztatzen duenak, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera: Batxilergoko batez besteko nota, hogeita bost urtetik gorakoentzako sarbide-probako kalifikazioa eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probako kalifikazioa. Horiek horrela, "Gai" kalifikazioa bostaren parekoa izango da zenbakizko notetan.

5. Matrikulatzeko epea amaitzean plaza libreak geratuz gero, ikastetxe horretan probak gainditu dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna plaza lortzeko, eta plaza horiek proba espezifikoa lortutako ordenaren arabera esleituko dira.

6. Amaitzeko, plaza libreak geratuz gero, beste ikastetxe batean espezialitate bererako sarbide-proba espezifikoa gainditu duten beste eskatzaile batzuei esleitu ahalko zaizkie.

7. Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, plaza huts berrien % 3 erreserbatuko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta sarbide-proba espezifikoa gainditzen badute. Plaza-erreserba hori ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen plaza berrien guztizkoaren arabera kalkulatu da.

8. Ezin izango da plazarik esleitu eskatzaileek sarbide-proba gainditu duten espezialitatea ez den beste batean..

9. Matrikula, "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo da uztailaren 4tik 14ra.

Eugenio Jiménez Ibáñez

IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIA



I. ERANSKINA

PROBAREN EGITURA

	ARIKETA	OHARRAK	ARIKETA EGITEKO DENBORA	ARIKETAREN BALIOA	
1. ZATIA	Epaimahaiak proposatutako testu bati buruzko iruzkina egitea.		60 minutu	20 puntu	
2. ZATIA	A ARIKETA				
	A1	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Klasikoko eskola-saioa.	Epaimahaiak izendatutako aditu batek zuzenduta	75 minutu gehienez	20 puntu
	A2	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Garaikideko eskola-saioa.		75 minutu gehienez	20 puntu
	B ARIKETA				
	B1	Bakartsaio bat egitea	Izangaiak aukeratukotakoa	3 minutu gehienez	15 puntu



C ARIKETA				
C1	Inprobisazio-saioa	Epaimahaiak izendatutako aditu batek zuzenduta	30 minutu gehienez	15 puntu
C2	Sorkuntza	Epaimahaiak proposatutako gaien edo ereduan oinarrituta	3 minutu gehienez (30 minutu prestatzeko)	10 puntu

OHAR GARRANTZITSUA

Proba espezifikoa gainditzen dutenen puntu kopuruari, hala badagokio, 6.3 puntuko merezimenduak gehituko zaizkio.